

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5233

346/2021 EBAZPENA, irailaren 23koa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Agurtzane Paskual Uribe andrea Erizaintzako ondoko (Lehen Mailako Arreta) izendatu den, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESlan.

Uztailaren 26ko 321/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Uribeko ESlan Erizaintzako Ondoko (Lehen Mailako Arreta) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia egin zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Agurtzane Paskual Uribe andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetzako Uribeko ESlko Erizaintzako Ondoko (Lehen Mailako Arreta).

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agurtzane Paskual Uribe andrea Erizaintzako Ondoko (Lehen Mailako Arreta) izendatzea, Osakidetzako Uribeko ESlan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2021eko irailaren 27an izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriarik dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Barrualde-Galdakaoko ESlari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiarik. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2021eko irailaren 23a.

Uribeko ESlko zuzendari-gerentea,
JESUS MANUEL SUAREZ ROMAY.